## 4- DIRU ITURRIAK

Gure proiektuaren helburuak ondo eta argi lortzeko, lehenik eta behin **dirua** ezinbestekoa izango da. Gainera, hasieran egin beharreko inbertsioa izango da nabarmenena eta, horregatik, gure enpresak izango dituen diru-sarrerak ondo analizatzeari seriotasunez ekiten diogun atal bat da.

Lehenik eta behin, enpresaren hasierari buruz hitz egingo dugu. Enpresaren lehen taupaden kostua nahiko garaia denez, hasieran bakarri beharrezkoak ditugun gauzak izango genituzke, hau da, kamioneta bat gehiago behar izango genituzke), lokal bat (150m2 ingurukoa), pertsonala (2 langile hasieran) eta bestelako gastuak (langileen alta emateak, materiala, enpresa erregistroan sartzea, etab.).

| **KAMIONETA (Hasieran 1)** | **LOKALA** | **LANGILEAK** | **BESTEAK** | **TOTALA** |
|---|---|---|---|---|
| 10.000 euro | 2.000 eur/hil | 3.400 eur/hil (1700 euro bakoitzak) | Alta: 3000 euro<br>Mater.: 4000 euro hasieran<br>E. Erreg.: 200 eur | 22.600 euro inguru (lehen hilean) |

Jarraitzeko, aurretik jada azalduta daukagun zeozer gure sistemaren zatiketa da. Gure sistema pertsona bakoitzari adaptatuko da eta, hortaz, prezioak dinamikoak eta aldakorrak izango dira. Izan ere, gaur egun hemen etxe bat adaptatzeak (atal atalezkoa da, geuk, aldiz etxe guztia adaptatzeko aukera ematen dugu) **9.000 euro** inguru balio ditu (OCU-aren datuak), instalazio oso bat izanez gero. Gure aldetik, antzekoak diren prezio batzuk proposatzen ditugu, baina instalazioei etxearen plan jeneral bat, instalazio pertsonalizatu eta aldakorra eta monitorizazio plan bat ematen ditugu ere. Baina, hori zehaztasunez ezartzeko, beste taula baten bidez daukagu prestatuta, bost esparrutan (pertsonaren ezin gabetasun portzentaiak kontutan izanik):

| %1-20 | %21-40 | %41-60 | %61-80 | %81-100 | Batezbesteko kostua |
|---|---|---|---|---|---|
| 2.000 euro instalazioa + 200 euro/hil monitorizazioa | 4.000 euro instalazioa + 400 euro/hil monitorizazioa | 6.000 euro instalazioa + 600 euro/hil monitorizazioa | 8.000 euro instalazioa + 800 euro/hil monitorizazioa | 10.000 euro instalazioa + 1.000 euro/hil monitorizazioa | 6.000 euro + 600 euro/hil |

Nahiz eta lehen esan bezala garesti samarra izan, lehenago esan moduan gure instalazioaren kalitate-prezio maila oso handia da beste instalazio normal batzuekin alderatuz eta, gure desberdintasun nabariak kontutan izanik, gure ustez merkatuan dagoen eskaririk onenetarikoa izango litzateke.

Azkenik, diru hornitzaileak lortu beharko genituzke eta, hortaz, horri buruzko informazio bilatu ostean, analisi zehatz bat egin dugu. Gure hornitzaileak hiru izango ziren: bankua, sektore publikoa eta bezeroak. Esan bezala, Jaurlaritzarekin adostasun batera helduz gero, gure planarentzako dirua lortuko genukeela uste dugu. Azken hau, gainera, ez zen edozergatik izango, baizik eta azken batean, hau eginez gero, guk egoera ekonomiko larrian dauden pertsonei prezioa merketu edota guztiz kenduko genieke, Euskadik daukan helburuetariko bati aurre eginez eta, hortaz, Euskal Jaurlaritzari lagunduz ere. Gero, bankua daukagu. Zati hau erraza izango litzateke, ELKARTEAK sailean azaldutako kolaboratzaileekin mailegu bat eskatzeko beharrezko kapitala lortzeko gai izango ginatekeelako. Azkenengoz, bezeroen tasak kobratzea, aurreko maileguaren ordainketa egiteko eta, aldi berean, diru sarrerak izateko ezinbestekoak izango ziren. Beraz, hornidura portzentaiak hauek izango litzateke.

